

<b>AURREPROIEKTUA</b> <b>NAFARROAKO SEGURTASUN PUBLIKOARI BURUZKO EKAINAREN 20KO 8/2006</b> <b>FORU LEGEA</b> <b>ETA</b> <b>NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO HERRITARREN SEGURTASUNERAKO</b> <b>KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN OTSAILAREN 28KO 13/2011 FORU DEKRETUA</b> <b>ALDATZEKO</b>	
Tramitea:	<b>ARAUAK IDATZI AURREKO KONTSULTAK</b>
Bitartekoa:	<b>GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA</b>
Araua:	<b>39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa</b>

Kide anitzeko organoak dira indarreko araudiak partaidetzarako arautzen dituen bide egonkorretako bat. 2016an Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak ikerlan bat egin du organo horiek politika publikoak garatu eta ezartzeko darabilten funtzionamendua eta horretarako duten baliagarritasuna ebaluatu eta proposamenak biltzeko, izan ere xede horretarako sortuak dira, eta ondorioa izan da berrikusi eta ebaluatu beharra daudela, kasuan-kasuan ukitzen dituzten sektoreen partaidetza eta ordezkaritza handitzearren.

8/2006 Foru Legeak kide anitzeko organo hauek aurreikusten ditu:

- Herritarren Segurtasunerako Kontseilua.
- Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea.
- Nafarroako Segurtasun Batzordea.
- Tokiko Segurtasun Batzorde bana udaltzaingoa duten udalerrietan.
- Herritarren segurtasunerako toki kontseiluak.
- Nafarroako Udaltzaingoa Koordinatzeko Batzordea.

Horretarako, Barne Zuzendaritza Nagusiak honako hau hauteman du, Nafarroako Segurtasun Publikoari Buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legean eta harekin bat datorren araudian jasotako kide anitzeko organoen mapari dagokionez eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak emaniko jarraibideak betez:

## **1. KONPONDU ASMO DIREN ARAZOAK**

- Kide anitzeko organo gehiegi dago Nafarroako Foru Komunitateko segurtasun publikoko sisteman.
- Organo horietako batzuk ez dira eraginkorrak.
- Kasu batzuetan, aurreikusitako kideen kopuru handiak zailtzen du funtzionamendua eta kudeaketa.
- Baliteke eginkizun batzuk bikoiztuak egotea.

## **2. ONESPENAREN PREMIA ETA EGOKITASUNA**

- Organoak zertan diren ebaluatzea (egitura, osaera, egindako lana eta politika publikoetan duten eragina).
- Eginkizunak zentzuz mugatu eta banatzea.

## **3. ARAUAREN HELBURUAK**

- Egun dauden organoei taxuketa zentzuzkoagoa eta errealistagoa ematea, politika publikoei egiten dieten ekarpenaren arabera (kenduz, elkartuz edo sustatuz).
- Taxuketa hori berrantolatzea, segurtasun publikoko sistemaren antolaketa doituz bai herritarren premia eta eskaerei bai Foru Komunitatearen errealitateari.
- Behar diren organoen eraginkortasuna optimizatzea bermatze aldera segurtasun publikoko sistema egokia dela eta segurtasun publikoko politiken ezarpena zuzen ebaluatzen direla.
- Tartean diren sektoreek segurtasun politiken diseinuan egiazki parte hartzen dutela sustatzea.

## **4. AUKERAN DAUDEN KONPONBIDEAK**

Segurtasun publikoko sistemaren oinarrian dagoen mapa organikoa berrantolatzeko ezinbestekoa da legezko arauak eta erregelamenduzkoak ukitzea.